

infraganti

JUANTXO ZEBERIO

Txiki-txikitatik bizi izan du musika. Tarteren bat zuen bakoitzean pianoaren aurrean eseritzen zen. Jotzearen plazer hutsagatik. Sekula ez zuen lanbide izango zuenik pentsatu. Bizitzaren joan-etorriek eraman dute, ia oharkabean, horretara. «Gauzak etorri egin ziren, bizitzak eraman egiten zaitu, baina, noski, hor zaudelako gertatzen da, ez kasualitatez», nabarmendu du.

Bere burua muskaritzat du. «Pianoa nahi dudan hori lortzeko tresna da niretzat. Instrumentua garrantzitsua da, noski, agertoki gainean horrekin zaudete eta daukazuna eman behar duzu. Baina ni baino piano jotzaile hobeak asko daude. Nire dedikazioa ez da instrumentua bakarrik. Musika jotzen, sortzen, moldatzen edo entzuten aritzen naiz. Baita isiltasuna bera ere. Edo mendira joan eta buelta bat ematea. Dena da lanaren parte».

Musika horixe da beretzat: lana. Inurri lana. Etengabe idazten du. Tiraderan izaten ditu konposaketak gordeta, argia ikusteko une egokiaren zain.

Borroka momentuak izaten ditu sortzaileak. Enkarguzko lan bat buruan jira-biran duela harrrapatu dugu. «Gauzak ez dira ateratzen zuk nahi bezala, edo utzi eta hurrengo egunean berri hartzen duzu... Borroka da, baina, era berean, plazera», aitortu du Zeberio. Bere ustez, sortzailea denaren eta ez denaren arteko desberdintasuna ez da gaitasuna, ingurukoari erne egotea baizik.

Pribilegiatua sentitzen da. «Nahi duguna egiten dugu eta gustura bizi gara. Baina era berean exigentzia eta dedikazioa guk baino askoz diru gehiago irabazten duten beste lanbide batzuetan baino askoz handiagoa da. Konpentsazioa ere segur aski handiagoa izango da, eta, gainera, ez dakigu beste ezer egiten».

Marina Abramovici behin irakurri zion esaldia akuilu du: «Beti aukeratu dut biderik zailena. Kostu handia suposatu dit,

Imanolekin igo zen lehen aldiz agertokira. Azken urteotan Benito Lertxundirekin eta Maddi Oihenartekin dabil. Beti pianoaren aurrean eserita. Bide berriak jorratzeko nahiak eraman du Tenpora taldea sortzera. Musikari lagunez inguratuta pozik dabil. Talde lanaz gozatzen, eta batez ere, entsegu gelako elkarlanaz.



Juantxo Zeberio, Tolosako Triangulo plazan Oteizak duen eskulturan.

Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS

baina bestela beti jarraituko nuke kaka berdina egiten», esan zuen hark. «Identifikatuta sentitzen naiz horrekin. Izan ere, erosotasunetik gutxi etortzen da. Tentsioan eta hartuko ez zenukeen lan hori hartzen duzunean, nahiz gaizki pasa... ».

Agertoki gaineko lehen emanaldiak datozkio gogora. Sentsazio berri haiek, beldur haiek... Imanolekin zapaldu zuen lehen aldiz agertokia modu profesionalan. Ez du berehalakoan ahaztuko. Paco Ibañezekin diskoa atera zueneko garaia zen. Lehenengo emanaldiak Victoria Eugenia eta Arriaga antzokietan izan ziren. «Zer egiten dut hemen?», izan zen burura etorri zitzaion lehen galdera. «Zeharo beldurtuta nengo. Baina behin hor zaudela jo egin behar duzu. Imanolekin lehenengo kontzertu haiek egin izan ez banitu seguru ez nintzatekeela hemen egongo. Eta oso erraz neukan 'hau ez da niretzat egina' esatea», esan du musikariak.

Bizitzaren aurreko jarrera hori etxean bertan arnastu zuen. «Horixe ikasi genuen etxean. Odolean eraman dezakezu baina ikasi egiten da, hezkuntzaren bitartez. Zailtasunak badaude, egongo dira, baina horietatik ikasi egiten da. Eta zailtasun horiek gaitzitzeak ekartzen du beti kaka berdina ez egitea», dio.

Aurrera egin zuen eta agertoki gainean gozatzen ikasi du. «Ikasi egiten duzu zein den zure lekua. Bizitzan gauza guztietan bezala, zeintzuk diren zure mugak. Aurrera egin behar duzu, baina nork bere mugak ezagutzea garrantzitsua da. Ez dakizunean ez zara kontziente egiten ari zarena ondo dagoen ala ez, aurreko pianistaren maila ematen duzun ala ez. Hori denborak